



EBAZPENA, 2022ko abenduaren 2koa, Langileak Kudeatzeko zuzendariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako, Hizkuntza Eskola Ofizialetako, Musika eta Arte Eszenikoetako, Arte Plastikoetako eta Diseinuko irakasleen, Maisu-maistren eta desagertze arazo dagoen Lanbide Heziketako irakasle tekniko kidegoetako iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespeneko prozesuan onartutako eta baztertutako behin betiko zerrenda onartzen duena. Halaber, horren bidez, lehentasun-hurrenkera zehazteko epea irekitzen da, irakasle-kidego bereko edo desberdineko espezialitate baterako baino gehiagorako eskabiderik aurkeztu badira.

Hezkuntzako sailburuaren 2022ko irailaren 22ko Aginduaren bidez (2022ko irailaren 30eko EHAA), Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako, Hizkuntza Eskola Ofizialetako, Musika eta Arte Eszenikoetako, Arte Plastikoetako eta Diseinuko irakasleen, Maisu-maistren eta desagertze arazo dagoen Lanbide Heziketako irakasle tekniko kidegoetan iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespeneko prozesurako deialdia egin zen.

2022ko azaroaren 10eko Ebazpenaren bidez, Langileak Kudeatzeko zuzendariarena, aipatutako hautaketa-prozeduran onartutako eta kanpoan utzitako izangaien behin-behineko zerrenda onartu zen.

Erreklamazioak aurkezteko epea amaitu ondoren eta behin aztertuta, aipatutako deialdiaren 4.4 oinarriak xedatutakoaren arabera,

EBAZTENI DUT:

1. artikulua.– Onartzea Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako, Hizkuntza Eskola Ofizialetako, Musika eta Arte Eszenikoetako, Arte Plastikoetako eta Diseinuko irakasleen, Maisu-maistren eta desagertze arazo dagoen Lanbide Heziketako irakasle tekniko kidegoetan iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespeneko prozesuan onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda (hautaketa-prozedura Hezkuntzako sailburuaren 2022ko irailaren 22ko Aginduaren bidez deitu zen).

2. artikulua.– Ebazpen hau, bai eta behin betiko zerrenda ere, interesdunei jakinarazteko, Hezkuntza Sailaren Interneteko helbide hauetan argitaratuko dira:

- <https://hezigunea.euskadi.eus/>(«Erabiltailea» eta «Pasahitza» sartuz) – «Eremu pertsonala» – «Izapideak langileen sailarekin» – «Administrazio-izapideak» – «EPE 2022. Irakasleak. Egonkortzeko salbuespeneko prozesua» – «Hautaketa-prozesuaren jarraipena» (hautatu Kidegoa eta Espezialitatea) eta «Onartuen eta baztertuen zerrenda»

- <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/hezkuntza-langileak/>(«EPE 2022. Irakasleak. Egonkortzeko salbuespeneko prozesua») «Onartutako eta baztertutako zerrenda».

3. artikulua.– Onartutako izangaien zerrendan agertzeak ez du esan nahi deialdi honetan eskatzen diren baldintza guztiak betetzen dituztela aitortzen zaienik. Deialdiaren 8. oinarriak xedatutakoari jarraiki hautatuko diren izangaiak aurkeztu behar dituzten dokumentuak ikusita egiaztatzen bada interesdunen batek betekizunen bat betetzen ez duela, osasun-azterketan ezgaitzat jotakoak barne, prozedura honetan parte hartzeak eman ditzakeen eskubide guztiak galduko ditu izangai horrek.

4. artikulua.– Interesdunek gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango diote Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari ebazpen horren aurka, hilabeteko epean, argitara eman eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko abenduaren 2a

Langileak Kudeatzeko zuzendaria,
BLANCA GUERRERO OCEJO